

Xedapen Orokorrak

ESTATUKO BURUTZA

3291

752/2005 ERREGE DEKRETUA, ekainaren 24koan, Juan José Ibarretxe Markuartu jauna Eusko Jaurlaritzako lehendakari izendatzeko dena.

Konstituzioaren 152.1 artikuluan eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 33.1 artikuluan xedatu-takoarekin bat etorriaz,

Eusko Jaurlaritzako lehendakari izendatzen dut Juan José Ibarretxe Markuartu jauna, 2005eko ekainaren 22 eta 23an egindako osoko bilkuran Eusko Lege-biltzarra hautatutakoa baita.

Madrilen, 2005eko ekainaren 24an.

JUAN CARLOS R.

Gobernuko lehendakaria,
JOSÉ LUIS RODRÍGUEZ ZAPATERO.

Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

3292

IRAGARKIA, 2005. urteko lan-eskaintza publikoa onartzeari buruzkoa.

Udalbatza honetako Alkatetzak, 2005eko maiatzaren 19ko dekretuaren bidez, 2005. urteko lan-eskaintza publikoa onartu zuen ondoren azaltzen den lanpostua betetzeko. Izan ere, hala agintzen da Eusko Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22. artikuluan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 91. artikuluan eta Funtzio Publikoa Aldatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 18.4 artikuluan.

Disposiciones Generales

JEFATURA DEL ESTADO

3291

REAL DECRETO 752/2005, de 24 de junio, por el que se nombra Presidente del Gobierno Vasco a don Juan José Ibarretxe Markuartu.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 152.1 de la Constitución y 33.1 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco,

Vengo en nombrar Presidente del Gobierno Vasco a don Juan José Ibarretxe Markuartu, designado por el Parlamento Vasco en la sesión plenaria celebrada los días 22 y 23 de junio de 2005.

Dado en Madrid, a 24 de junio de 2005.

JUAN CARLOS R.

El Presidente del Gobierno,
JOSÉ LUIS RODRÍGUEZ ZAPATERO.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

AYUNTAMIENTO DE ALEGRÍA-DULANTZI

3292

ANUNCIO relativo a la aprobación de la Oferta Pública de Empleo para el año 2005.

Por Decreto de Alcaldía de esta Corporación de fecha 19 de mayo de 2005, se aprobó la Oferta de Empleo Público correspondiente a la plaza que a continuación se reseña para el año 2005, en cumplimiento de los artículos 22 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, el artículo 91 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local y el artículo 18.4 de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública.